



Arbizuko
Udala

GAZTETXOKORAKO BEGIRALE KONTRATAZIOA ETA LAN POLTSA OSATZEA 2022/2023 IKASTURTEA

Arbizuko Udalak 11 eta 14 urte bitarteko gazteen aisialdirako, Gaztetzokorako **bi begirale** kontratatuko ditu. Horretarako, eskatutako dokumentazioaren bidez egiaztatzen diren ikasketak eta lan-esperientzia hartuko ditugu kontuan.

Dokumentazioa aurkezteko epea: 2022ko irailaren 22a

Lekua: Arbizuko Udala

Lanpostu kopurua: 2

Oharra: Eskatutako dokumentazioa ondorengo zehaztapenen arabera izanen da. Bakoitzari egozten zaion baremoa baita ere.



AISSIALDIKO BEGIRALEA 2022/2023

EZINBESTEKO BALDINTZAK

- 18 urte beteta izatea lan-kontratua sinatzen den unean. (NAN kopia)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua izatea. (DBHko titulua)
- EGA edo C1 titulua izatea edo maila-proba gainditzea. (EGA edo C1 titulua)
- Sexu-deliturik ez izatea egiaztatzea. Sexu-izaerako delituen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Kontratatuak diren pertsonak bakarrik aurkeztu beharko dute dokumentu hau, kontratua sinatu aurretik.

BALORATU BEHARREKO MEREZIMENDUAK

- **FORMAKUNTZA (Gehienez 15 puntu):**

FORMAKUNTZA (Gehienez 15 puntu)	
Formakuntza arautua (Gehienez 12 puntu)	PUNTUAK
Haur edo Lehen hezkuntzako Gradua (240 ECTS)	12,00
Pedagogiako, Psikologia Gradua (240 ECTS)	5,00
Kirola eta zaintzarekin zerikusia duten Graduko ikasketak (240 ECTS)	8,00
EMHZ: Haur-heziketarekin zerikusia duten ikasketak (1640 ordu)	3,50
EMHZ: Kirola eta zaintzarekin zerikusia duten ikasketak (1640 ordu)	2,50
GMHZ: Haur-heziketarekin zerikusia duten ikasketak (120 ECTS)	6,00
GMHZ: Kirola edo zaintzarekin zerikusia duten ikasketak (120 ECTS)	4,00

* **FORMAKUNTZA:** Titulua, ECTS kredituak edo orduak ziurtagiri edo dokumentu ofizialarekin egiaztatu behar dira.

Postuarekin zerikusia duen beste formakuntza batzuk (Gehienez 3 puntu)	PUNTUAK
Zentro homologatuko aisialdiko monitorearen titulua (270 ordu)	2,5
Genero-berdintasunarekin lotutako prestakuntza	10 orduko 0,10 puntu.
Lehen sorospeneekin lotutako prestakuntza	10 orduko 0,10 puntu.
Aisialdia, jokoak edo gaiarekin lotutako prestakuntza	10 orduko 0,10 puntu.

* **Oharra:** Puntuatzeko beharrezkoa izango da titulu ofiziala aurkeztea, edota gaitutako kreditu edota egindako orduen ziurtagiri ofiziala aurkeztea. Dokumentazio honekin justifikatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko.

** **Oharra:** Epaimahaiak baloratu ditzake bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten eta aurreko taulan agertzen ez diren beste formakuntza batzuk.

- **ESPERIENTZIA: (Gehienez 20 puntu):**

ESPERIENTZIA (Gehienez 20 puntu)	PUNTUAK
Aisialdiko hezitzailea udal edo enpresetan.	60 orduko 4 puntu.
Irakasle-esperientzia haur eta lehen hezkuntza arautuan.	60 orduko 6 puntu.

* **Oharra:** Puntuatzeko beharrezkoa izango da Gizarte Segurantzaren lan-bizitza eta kontratuak aurkeztea. Dokumentazio honekin justifikatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko. Ez da beste lan-esperientziarik kontutan hartuko.

Berdinketa gertatuz gero, lan-esperientzian puntuaziorik handiena duenari emango zaio lehentasuna.



GAZTETXOKORAKO BEGIRALE DEIALDIA

EZINBESTEKO BALDINTZAK

- 18 urte beteta izatea lan-kontratua sinatzen den unean. (NAN kopia)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua izatea. (DBHko titulua)
- EGA edo C1 titulua izatea edo maila-proba gainditzea. (EGA edo C1 titulua)
- Sexu-deliturik ez izatea egiaztatzea. Sexu-izaerako delituen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Dena den, kontratatuko diren pertsonak bakarrik aurkeztu beharko dute dokumentu hau, kontratua sinatu aurretik.

BALORATU BEHARREKO MEREZIMENDUAK

- **FORMAKUNTZA (Gehienez 15 puntu):**
 - **Formakuntza arautua (Gehienez 13 puntu):**
 - Haur edo Lehen Hezkuntzako Gradua.
 - Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia Gradua.
 - Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Gradua edo antzekoak.
 - EMHZ:
 - Soziosanitarioa
 - Mendetasun-egoeran dauden pertsonak
 - Kirola eta gorputz jarduerekin zerikusia dutenak.
 - GMHZ:
 - Gorputz eta kirol jardueren animazioa edo antzekoetan.
 - Animazio soziokulturala.
 - Haur hezkuntzarekin zerikusia dutenak.
 - Gizarte-integrazioa.
 - **Postuarekin zerikusia duen beste formakuntza batzuk (Gehienez 2 puntu):**
 - Erakunde homologatuak emandako aisialdiko begirale-ikastaroaren titulua izatea.
 - Aisialdia, jokoak, adimen emozionala, harremanak...
 - Lehen-sorospenak.
 - Genero-berdintasunarekin edota hezkidetzarekin lotutako prestakuntza.



* **Oharra:** Merezimenduak kontuan hartzeko, beharrezkoa izango da gainditutako kredituak edota egindako orduak ziurtagiri edo dokumentu ofizialaren bidez egiaztatzea.

- **ESPERIENZA (Gehienez 20 puntu):**
 - Begirale-esperientzia udal eta enpresetan.
 - Irakasle esperientzia haur eta lehen hezkuntza arautuan.

***Oharra:** Merezimenduak kontuan hartzeko, beharrezkoa izango da Gizarte Segurantzaren lan-bizitza eta kontratuak aurkeztea. Dokumentazio honekin justifikatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko.

Prozesua irekita geratzen da bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten eta epaimahaiak baloratu behar direla uste duen aurreko ataletan sartzen ez diren beste titulazio, gradu, lan-esperientzia eta abarretara.

Berdinketa gertatuz gero, lan-esperientzian puntuaziorik handiena duenari emango zaio lehentasuna.